

DBH3 MATematika: "Zaku bete letra eta zenbaki, mila galdera-erantzun" Ezagutzak

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Polinomioak laburtu eta osatu eragiketen propietateak baliatuz eta haiekin oinarritzko eragiketak egin, zuzentze-prozesuari behar duen arreta eta garrantzia eskainita.	1.1. Monomioen ezaugarriak eta osagaiak identifikatu ditu (koefizientea, zati literala, maila...) eta haien arteko eragiketa aljebraikoak burutzen ditu. 1.2. Polinomioak laburtu, ordenatu eta sailkatzeko gai da (osoa, ez-osoa). 1.3. Adierazpen aljebraikoak garatu eta sinplifikatu ditu propietate egokiak baliatuz: banatze, elkartze eta trukatzeko propietateak. 1.4. Polinomioen arteko eragiketa aljebraikoak ondo burutzen ditu: batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak. Identitate nabarmenak. 1.5. Polinomioekin loturiko problema sinpleak eta egoerak modelizatu, garatu eta ebatzi ditu, eta horretarako, egoeraren aldagaiak identifikatu eta haien arteko erlazioak bilatu ditu.
2. Bi magnitudeen arteko erlazio zehatzak funtzioen bidez adierazi eta adierazpen moldeen arteko eraldaketak egin.	2.1. Lehenengo mailako ekuazioak ebatzi ditu. 2.2. Ekuazioen bitartez adierazi daitezkeen problema sinpleak modelizatu eta ebatzi ditu. 2.3. Funtzio linealak eta afinak: Bi puntu emanda zuzen baten adierazpen aljebraikoa zuzen kalkulatu du eta grafikoki adierazten du. 2.4. Zuzen baten malda (m) eta jatorriko ordenatua (b) identifikatzen eta kalkulatu ditu. 2.5. Bi magnitudeen arteko erlazio funtzionalak identifikatu ditu eta zuzenen bidez adierazi daitezkeen erlazioak bereizi eta sailkatu ditu, erabakia justifikatuz. 2.6. Zuzenen adierazpen molde desberdinen artean (testuala, grafikoa, aljebraikoa eta taula bidezkoa) eraldaketak egin ditu eta ezaugarrien arabera deskribatu eta interpretatu ditu: funtzio mota, malda, ordenatu jatorria, hazkundea, eremua eta ibilbidea. 2.7. Eguneroko bizitzarekin erlazionatutako erlazio funtzional sinpleak interpretatu eta eraldatu ditu eta haietatik informazio berria lortu du.
3. Problema ebazteko urratsetan modeloen erabilgarritasuna balioetsi, eta, modelo egokiak baliatuz, beste zientzietako erlazioak interpretatu eta kontaketarekin lotutako galdera zehatzei erantzun, haien onargarritasuna balioetsita.	3.1. Egoera errealean problemak ebazpenaren urratsak identifikatu eta adierazi ditu. 3.2. Eguneroko bizitzarekin erlazionatutako erlazio funtzionalak interpretatu eta eraldatu ditu eta haietatik informazio berria lortu du. 3.3. Kontaketarekin erlazionatutako egoerak modelizatu ditu eta problema ebatzi ditu.
4. Norberak sortutako problema ebazteko ereduaren arabera, ekuazio eta ekuazio-sistemekin erlazionatutako eguneroko bizitzako galderei eta zereginari aurre egin, teknika zehatzak baliatuz eta egiteko horretan irmoki jokatu.	4.1. Ekuazio-sistema linealak ebatzi ditu, grafikoki zein aljebraikoki ordezkatzeko, berdintze eta laburtze-metodoak erabili. 4.2. Soluzioaren arabera sistema nolakoa den identifikatu du. Zuzenen kokapen erlatiboa identifikatu du. 4.3. Eguneroko bizitzarekin erlazionatutako egoera sinpleak modelizatu eta ekuazio-sistemen bitartez ebatzi ditu, problema ebazpenerako urratsak jarraituz.